

# ESPERIENTZIAREN IZENA: Marienea, Basauriko Emakumeen Etxea



## OINARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Marienea, Basauriko Emakumeen Etxea
- **Erakunde mota:** Publikoa.
- **Sortze-urtea:** 2012.
- **Jarduera-sektoreak:** berdintasunaren alorreko sentsibilizazioa, kontzientziaketa eta hezkuntza; emakumeen aurkako indarkeria; emakumeen parte-hartze soziopolitikoak; berdintasun-politika publikoak diseinatu eta aplikatzea; emakumeak ahalduntzea.
- **Egitura:** Soldatapeko pertsonala
- **Kokapena:** Kareaga Goikoa, 54 – 48970 Basauri (Bizkaia)
- **Webgunea:** <http://berdintasuna.basauri.eus> eta Facebooken: Marienea BASAURI
- **Jarduera eremua:** Tokikoa batez ere, baina baita eskualdekoa eta autonomikoa ere. Batzuetan, nazioarteko proiektuetan ere parte hartzen du.

## HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Berdintasun-teknikaria
- **Telefonoa:** 946 124 100
- **Helbide elektronikoa:** [marienea@basauri.eus](mailto:marienea@basauri.eus)

## SINTESIA

### ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Marienea espazio irekia, plurala, feminista eta berdintasuneko da, berdintasunaren alde lan egin nahi duten basauriar emakume eta gizonentzat. Herriko mugimendu feministak historikoki aldarrikatu duen espazio horrek jarraipena eta identitatea ematen dizkio duela urte batzuk emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatu eta sendotzeko hasitako lanari. Marienea elkargunea eta gogoeta gunea da; ahaleginak eta irrikak elkar-tuz, diskriminaziorik eta desberdintasunik gabeko gizarte librea eraikitzeko lekua.

Marienean honako hauek daude:

#### • **Berdintasun Atala**

Haren eginkizunak dira, batetik, berdintasun-politika publikoak diseinatu eta aplikatzea, eta bestetik, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna eta diskriminazioa zuzendu eta konpentsatzeko eta bidezko eta berdintasuneko gizarte-eredua bideratzeko programak, planak eta proiektuak bultzatzea.

Jarraian zerrendaturiko baliabide guztiak Berdintasun Atalaren mende daude.

#### • **Emakumeen Informazio Zentroa (EIZ)**

Emakumeentzako informazioa, aholkularitza, laguntza juridikoa eta arreta psikologikoa eskaintzen ditu, honako gai hauei buruz: indarkeria matxista, erasoak, tratu txarrak, banantzeak eta dibortzioak, izateko bikoteak, etxeko langileen eskubideak, lan- diskriminazioa, sexu-jazarpena eta abar.

#### • **Ahalduntze Eskola**

Emakumeen Ahalduntze Eskolako jarduerak, lantegiak, ikastaroak eta mintegiak antolatzen ditu, baita herritar guzteei irekitako erakusketak, solasaldiak, jardunaldiak eta beste jarduerak ere. Bizkaiko Ahalduntze Eskolen Sarean dago.

## • 1ERA 2KAIN

Basauriko ikastetxeetan eta prozesu parte-hartzaileen dinamizazioaren bidez emakume eta gizonen arteko berdintasun-balioak bultzatzeko hezkuntza-proiektua da. Programaren helburua da gazteek jokaera eta jarraera sexistak antzematea eta helarazi nahi zaizkien berdintasun-balioak eskuratzea.

## • Elkargunea

Basauriko emakume eta feministen taldeak elkartu eta biltzeko lekua da, baita haietako askoren egoitza ere. Kogestionatutako proiektuak daude hemen, hala nola emakumeen liburutegia.

## • Sexu Informazio Bulegoa

Herritar guztientzako sexu-orientazioa eta -informazioa. Taldekako eta banakako arreta. Ikastetxe eta beste kolektibo batzuentzako aholkularitza sexu-heziketari buruz, udalerriko beste kolektibo eta osasun-zentro batzuekin koordinatuta.

## • Equitruke

Gure ezagutzak, talentuak eta gaitasunak partekatzeko, elkarri eskaintzeko eta horiei buruz gogoeta egiteko espazioa da. Bertako truke-diru bakarra unean uneko beharrak konpontzeko erabiltzen den denbora da. Belaunaldien arteko espazioa da, eta kontsumo arduratsua eta iraunkorra bultzatuz, egungo ereduaren alternatiba bat eskaintzen du.

## TESTUINGURUA



**Zeuden beharrak:** Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren berdintasuneko eredu batera eta gizarte-aldaketara bideratzea. Espazio propio bat izatea.

**Aldeko aurrebaldintzak:** Gizarte-oinarri bat izatea. Emakumeen Ahalduntze Eskola 2003an inauguratu zen. Herriko mugimendu feminista aktiboa da eta egituratzeko gaitasuna du.

**Aurkako aurrebaldintzak:** Aurrekontu mugatua, krisialdiko egoera ekonomikoa dela eta.

## INFORMAZIO OROKORRA



### Zer lortu nahi zen?

- Udalerrian erreferentziatzeko espazio bat izatea emakumeen eskubideen alde lan egiteko eta sareak eratze-ko partaidetza bultzatzeko. Espazio horrek hainbat baliabide bateratu behar zituen: hain zuzen ere, indarkeria matxistaren biktimetzako arreta, sexu-heziketaren sustapena, berdintasuneko hezkuntza- eta prestakuntza-programak, ahalduntze-prozesuetan lagun egitea eta antzemandako beste behar eta interes batzuk.

### Zer lortu zen?

- Udalerriko emakumeentzako berezko espazio bat izatea, profesionalek kudeaturiko baliabideez hornitua.
- Emakumeentzako sarbidea izatea, batez ere laguntza-baliabideen beharrik handiena dutenentzat.
- Marienea Basauriko Emakumeen Etxearekin lotutako berdintasun-proiektuetan parte hartzen duten beste emakume-erakunde eta gizarte-mugimendu batzuekin koordinatzea.

### Nola lortu zen?

- Udalerriko mugimendu feministaren presioaren bidez.
- Gizarte-errebundizioaren ondorioz egindako negoziazio politikoaren bidez.

### Nork ahalbidetu zuten?

- Basauriko Berdintasun Kontseilua osatzen duten erakundeek: Basauriko Emakumeen Elkartea, Manuela Egui-guren, Ate Zabaliak, Enproa, Basauriko Alargunen Elkartea, Hemengo eta Hango Emakumeak, Emakumeak Elkartasunean, Marienea Basauriko Emakumeen Etxea Elkartea, Zure Ondoan, Emakumeen Sustapen Zentroko emakumeak, Helduen Hezkuntzako emakume-taldea.
- Ahalduntze Eskolan emandako ikastaroetatik sortu diren beste erakunde eta elkarte batzuk: Las Kapritxosas eta la Banda Feminista.
- Basauriko Udala.

## Indarrak eta ahuleziak/zailtasunak

Indarrak:

- Talde-lana.
- Diziplina anitzeko ikuspegia:berdintasun-teknikak, arlo horretako eta beste diziplina batzuetako pres-takuntzarekin (gizarte-hezkuntza, psikologia, sexologia, soziologia, abokatutza...).
- Metodologia malguak eta dinamikoak, errealitatera zein gogoetaren eta parte- hartzearen bidez egindako aldatetara egokituak.
- Emakumeentzako arreta-eredu integrala, beste udal-departamentu batzuekin sarean lan egiten duena, emakumeen behar eta interesei erantzuteko.

Ahuleziak/zailtasunak:

- Aurrekontu mugatua.
- Kontratutako pertsonalaren lan-baldintzak.
- Alde instituzionalaren eta asoziatiboaren arteko orekari eustea.

## Arrakasta faktoreak

- Gizarte-mugimenduek parte hartzen duten eta herritarrekin konprometitu dagoen proiektu batean sines-tea.
- Ikuspegi estrategikoa.
- Eraikuntza kolektiboko lan-giroa.
- Komunitate-lanaren aldeko apustua.
- Basauriko emakume eta feministen taldeen nahiz antzekoen laguntza.
- Laguntza instituzionala.

## Ikasitako irakaspenak

- Lana gizarte-errealitatera egokitu beharra dago.
- Lan kolektiboaren bidez betetzen dira ametsak.
- Tokiko eta guneroko ekintzetan oinarritutako pentsamendu globala.

## Etorkizunerako erronkak

- Marienea proiektua talde estrategikoetara hurbiltzea: gaztengana, berdintasunaren alde lan egin nahi duten gizonengana eta abar.
- Proiektua sendotzea.
- Berdintasunaren aldeko lana zeharkakoa izatea, beste arlo batzuekin koordinatuta.